

Irene Arrarats

ZUZEN, ZEHAZT ETA EGOKI

“

EDUKI NAHI DUT GANBARA EUSKARAZKO FEMINISMOZ BETEA

”

Simone de Beauvoir-en *Bigarren Sexua* itzuli berri du, orain gutxi, eta lehendik ere Monique Wittig-en *Pentsamendu heterozuzena* saiakeraren itzultzaile taldeko kide izana da. *Berria*-ko euskara arduraduna eta estilo liburuaren zuzendaria ere bada. Feminismoa mugatuan edo mugagabea noiz eta nola deklinatzen den inork gutxi jakingo du Arraratsek baino zehatzago.



MIREN ARTETXE SARASOLA



DANI BLANCO

Geografia eta Historia ikasi zenituen. Nolatan erabaki zenuen *Euskaldunon Egunkaria*-n lanean hasia?

Txiripaz. Txiripa bat izan zen. Karrera bukatzen ari nintzela, alfabetatzen ari nintzen, euskaltegia, eta nire irakasleari asko gustatzen zitzaion nola idazten nuen. Eta nik ikasketak bukatu berri-tan norbaitek eskaini zion irakasle hari *Euskaldunon Egunkaria*-n hasia zuzentzaile. Berak beste plan batzuk zituen eta ez zeukan horretarako gogorik, eta esan zidan: “Zuk ez duzu nahiko?”, eta esan nuen, “Ba probatuko dut”. Eta probatu nuen eta gaur arte. Egia esateko, niretzako Euskaldunon Egunkaria izan da pertsonalki eta lan aldetik ere, zoragarria. Izugarri gustatzen zait egiten dudana.

Orain *Berria*-n egiten duzu lan euskara arduradun gisa, eta bertako estilo liburuaren zuzendari ere bazara, besteak beste. Zein da komunikabideek euskararen normalkuntzari egiten dioten ekarpena?

Komunikabideak gaur egungo munduan funtsezkoak dira hizkuntza baten ibilbidean. Eta komunikabideak esaten dudanean esaten dut klase guztietakoak, ez bakarrik prentsa. Ikus-entzunezkoen indarra esan beharrik ere ez dago zer nolakoa den, ezta? Hizkuntza gaur egun hor egosten da. Kalean, eskolan eta etxean ere bai, noski, baina, hori ez da nahikoa. Zuk familia euskalduna baldin badaukazu eta euskaraz ikasi baldin baduzu, oso

ondo, baina, hala ere ez da nahikoa: gainerako guztia erdaraz baldin badaukazu, herren zaude. Egiten dituzun gauzen erdiak erdaraz egiten dituzu, frantsesez edo gaztelaniaz, eta batzuetan ingelesez ere bai. Orduan, gauza berriak nondik iristen zaizkigu? Hitz berri bat entzuten dugunean, nondik jaso dugu? Ez alferrik batzuk komunikabideei “hedabide” deitzen diete: ideologiak bezainbat hizkera moduak zabaltzeko aparatu kultural indartsuenak horiek dira gaur egun, dudarik gabe. Eta kontua da euskaldunok estandarizazioari eta normalizazioari dago-kionez, beste batzuek mendeetan egin dutena oso urte gutxitan egin dugula. Hala eta guztiz ere, iruditzen zait oso txukun egin dela.



Irene Arrarats Lizeaga

HERNANI, 1967



Geografia eta Historiako lizentzia-duna da, ikasketaz. Bere lan-jarduna hizkuntzari lotuta egon da, ordea. 1991n *Euskaldunon Egunkaria*-n hasi zen zuzentzaile eta itzultzaile lanetan, eta euskara arduradun aritu zen bertan 1999tik itxi zuten arte. 2003az geroztik, *Berria*-ko euskara arduraduna eta estilo liburuaren zuzendaria da. 2007tik parte hartu izan du Euskaltzaindiako hainbat batzordetan eta euskaltzain urgazlea da, 2018tik. Feminista ere bada, eta feminismoa eta euskara uztartzen dituzte bere hainbat lanek. Monique Wittig-en *Pentsamendu heterozuzena* (Lisipe, Susa) saiakera bilduma itzuli zuen 2017an, Maialen Berasategi Catalan, Danele Sarriguarte Mochales eta Mirentxu Larrañaga Sueskun-ekin batera. Eta kaleratu berri den Simone de Beauvoir-en *Bigarren Sexua* (Eskafandra, Elkar/Jakin) saiakera eza-guna ere berak itzulia da.

Eta nola egiten zaio aurre *Berria* bezalako komunikabide txiki batetik mundu zabaleko kontuez jarduteko egunero sortzen diren hizkuntza premiei? Nola lehiatu hizkuntza handietako komunikabideekin?

Horixe gertatzen zaigu. Euskarazko komunikabideak oso txikiak garela. Eta nik uste dut *Berria*-k kalitate oneko egunkari nazional eta generalista eman diela euskaldunei. Baina, noski, aztertzen hasten baldin bagara benetan soziolinguistikoki gure hartzailak nolakoak diren, ba askorentzat euskal prentsa irakurtzea lan bikoitza egitea da. Eta prest egon behar duzu lan hori egiteko. Eta nik sentitzen dut, baina jendeak ere ahalegin bat egin behar du. Batzuek esango didate ezin dugula jende xehearen bizkar jarri zama hori, eta ados nago. Hori erakundeek bitartez egin behar da eta erakundeek jarri behar dituzte baliabideak. Baina, honetaz gero, ikusita dago erakundeek ez dutela jarriko behar adina baliabide, eta horregatik egiten diot dei jendeari ere, erantzukizuna gurea ez izanagatik.

Euskarazko komunikabideak behar ditugu, orduan. Baina, nolako euskara behar dugu komunikabideetarako? Azken aldian badirudi ustez aspaldi gainditutako batua inguruko eztabaida arnasberritu egin dela.

Bai, niretzako azkeneko urteetako eztabaida hau oso harrigarria da. Iruditzen zait gure konplexuen erakusgarri dela, eta esango nuke autogorrotoaren erakusgarri ere badela. Espainiar bati edo frantziar bati ez zaio burutik pasa ere egiten frantses batua eta gaztelania batua auzitan jartzea. Egintzat ematen du eta beharrezkotzat jotzen du modu naturalean. Guri ez zaigu hori gertatzen, hain zuzen zapalduta gaudelako kulturalki. Nola esan dezakegu hizkera modu bat batua izateagatik artifizia dela? *CSI Las Vegas* telebista saioan erabiltzen duten gaztelania naturala al da ba? Ez dut uste gure inguruko erdara halakoa denik. Euskarak nahikoa oztopo ez, eta gainera eskatzen diogu beste hizkuntzei eskatzen ez dieguna.

Batua behar dugu, ETBko *Gaur Egun*-en hitz egiteko, adibidez, eta ahalik eta modurik neutroenean, gainera. Baina batuak erregistro neutroa

baino gehiago izan behar du. Batuak eman behar du modua Gasteizko gazteek hitz egin dezaten, baina, gazteen hizkeran. Askok identifikatzen dute batua erregistro neutroarekin, eta nire ustez batua hori baino gehiago da eta izan behar du. Eduki behar dugu batu bat *super jaso*a, gero beste bat formala, baina beharbada ez hain jaso, eta gero hizkera arruntak, eta gazte argota ere behar dugu batuan. Euskaldun askok ez daukate euskalki deitzen den hori eta horiek ere behar dituzte erregistro guztiak. Erregistro guztiak ez dituen hizkuntza bat hiltzera kondenatuta dago.

Beharbada ez dugu denok berdin ulertzen euskara batua zer den eta zer ez den...

Iruditzen zait estandarizazioa nahiko txukun egin dela, baina, gero jendarteratzeko orduan ez dela batere ondo jendarteratu. Batua zer den oso modu hertsian edo murritzailan ulertu dute batzuek. Nork esan du euskalkietako hitzak eta joskerak ez direla batua? Beti kontatzen dut anekdota bera baina egia da: *Euskaldunon Egunkaria*-ren garaian Bilbotik kazetari batek deitu zigun galdetuz, "utziko didazue 'barik' jartzen titulu batean?". Baina, nola ez ba? "Barik" ez al da batua? Zergatik ezingo duzu ba jarri? Gogoan dut baita ere noiz jarri genuen lehenengo aldian titulu batean "adostu". "Ados jarri" esaten ikasia genuen Hegoaldeko kook, baina "adostu" Iparraldekoek bakarrik erabiltzen zuten. Orduan halako batean titulu batean ez zen kabitzen "ados jarri" eta esan genuen "ba, 'adostu'". Eta oso arraro begiratu ziguten orduan, baina, gaur egun edozein euskaldunek, hango eta hemengo, erabiltzen du lasai-lasai.

Egokitasuna eta zuzentasuna, genero ikuspegiari ere lot dakizkioke. Zein leku ematen diozu horri zure eguneroko bizitzan eta lanean?

Nik hizkuntzari garrantzi handia ematen diot. Hizkuntzari eta hizkerari. Eta beti esaten da euskarak ez daukanez genero gramatikalik ezin dela izan hizkuntza sexista. Baina, hizkuntza sexistak ez dira existitzen, diskurtso sexistak existitzen dira. Eta euskaraz ere egin daitezke diskurtso sexistak, noski. Genero gramatikalik ez izan arren badauzka esamoldeak geure gizarte-

ren ispilu direnak. Esate baterako orain *Berria*-n gertatzen da –eta ez dut uste *Berria*-ren ezaugarri berezi bat denik–, gazte bat aipatu behar dugunean, alegia, mutil gazte bat aipatu behar dugunean jartzen dugu “Gazte bat atxilotu dute”. Ados. Baina neska baldin bada, orduan espezifikatu beharra sentitzen dugu eta “Neska gazte bat atxilotu dute” jartzen dugu. Horrelakoak etengabeak dira eta profesionaloi dagokigu horretaz konturatzeara eta onbideratzeara. Etengabe erne egotea dagokigu.

Nahikoa lan ez prekarioki euskarazko erresonantzia kutxa txiki bat osatzen, eta euskarazko kazetariei eskatu behar diegu gainera hizkera ez sexista erabiltzea?

Niretzako hau guztia ez da zama bat. Gehiago sentitzen dut “joño, egin dezaket zerbait merezi duena”. Alegia, mundu hau pixka bat hobea izateko zerbait egin dezaket. Euskalduna izatea alde batetik menperatua eta zapaldua izatea da, baina, bestetik aukera ederra da gauza batzuk egiteko, libreago izateko, eta zer pentsatzen duzun libreago esateko ere. Komunikabideetan, esate baterako, erdaraz orain internetekin sortu dira komunikabide alternatiboak beste ahots batzuk jasotzen dituztenak, baina, komunikabide estandarrek edo ohiko telebista ikusiz gero, horrek nola moldatzen du zure pentsamendua eta zure bizitzeko era? Euskalduna baldin bazara badaukazu aukera edozein egunetan Nancy Fraser-en elkarrizketa bat leitzeko, *Argia*-n edo *Berria*-n, adibidez. *El Diario Vasco* leitzen baldin baduzu ba ez duzu hori jasoko. Orduan, gure txikian abantaila batzuk ere baditugu, beraz, balia ditzagun.

Gure txikian, pentsamendu feministaren garapenean mugarri izan diren hainbat lan euskaratu dira azken aldian. Wittigen *Pentsamendu heterozuzena* (Lisipe, Susa) itzultzen parte hartu zenuen zuk zeuk, eta Simone de Beauvoiren *Bigarren Sexua* ere zuk itzulita da. Dagoeneko euskaraz irakur genitzake beste hainbat lan ere (Elkar-ek eta Jakin-ek lankidetzan sorturiko Eskafandra bilduman, Susaren Lisipe bilduman, edo Katakrahen argitalpenen artean). Jakinik testu horiek guztiak

aurki daitezkeela frantsesez eta gaztelaniaz, zergatik itzuli testuok euskarara?

Eta zergatik ez? Gaztelaniara itzuli baldin badute euskarara zergatik ez dugu itzuliko? Nik feminismoaz euskaraz pentsatu nahi dut eta feminismoaz euskaraz eztabaidatu nahi dut eta ez dut itzultzaile lanetan ibili nahi hitz egin ahala. Eduki nahi dut ganbara euskarazko feminismoaz betea. Euskarara ekartzen ez baldin baditugu interesatzen zaizkigun obrak, gure pentsaeran eragina daukatenak, edo ondo pasarazten diguten nobelak, erreferentzia horiek erdaraz izango ditugu. Kulturalki nahi dugu burujabe izan edo nahi dugu menpeko izan?

Hori da kontua. Gero, esango didazu: “Baina, nola neurtu gure indarrak?” Zer itzuli eta zer ez? Zeren bistan da ezin dugula gaztelaniaratzten edo frantseseratzten den guztia euskaratu. Hor selektibo izan behar dugu. Baina, geure burua justifikatzten ibili, ez. Kultura guztietan egiten dute: Luterok alemanera itzuli bazuen Biblia, guk zergatik ez? Biblia euskaratuta dago aspalditik, eta ma-

kina bat aldiz. Ba, Simone de Beauvoir behin behintzat itzuli beharko dugu, ez?

Eta zein leku du euskarak euskal mugimendu feministaren baitan? Iaz egin ziren Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan, esaterako, eta antolakuntzak euskarari lehentasuna emateko apustua eginagatik, hitzartzeetan euskararen presentzia ez zen erdira heldu. Horren inguruan altxa ziren zenbait ahots kritiko. Nola ikusten duzu zuk kontua?

Euskaingintzak oraintsu arte ez zeukan bere ardatzetan feminismoa, gure munduaren ispilu baitzen. Mundua aldatuz doa eta bide onera aldatuz gero, ba oso ondo, ongi etorri. Eta feminismoak ez zeukan baliabiderik euskal herriaren edo Euskal Herriko egoera soziolinguistikoari buelta emateko, eta gogorarazi nahi dut jardunaldi feministak Euskal Herriko Jardunaldi Feministak direla. Ez dira feminista euskaldunen jardunaldiak. Orduan, noski, daukagun egoera soziolinguistikoarekin moldatu behar dugu eta gainera ahal dugun guztia egin behar dugu hori geurera ekartzeko. Eta, esate baterako, azkeneko jardunaldi fe-



Espainiar edo frantses bati ez zaie bururatzen euren hizkuntza batua auzitan jartzea”



ministetan egin zen hizkuntzaren trataera goraipatzekoa iruditzen zait. Euskal Herriko beste mugimendu sozialak ehuneko ehun euskaldunak dira? Ez. Gure egoera soziolinguistikoaren isla da hori ere. Zer jarrera daukate mugimendu sozialek? Ona? Pausoak ematen ari dira? Prozesu batean ari dira? Ez dakit, baina nik badakit mugimendu feminista ari dela horretan eta ez orain! Orain dela hogeit urte ere ari zen.

Euskal mugimendu feministaren baitan bada euskara ez dakienik, noski. Emakume migranteekiko, bereziki, euskara harreman horizontalak eraikitzeke traba bat gehiago dela ulertu izan da maiz.

Nola lortu mugimendu feministara hurbiltzen diren emakume guztiak, haien zirkunstantzia pertsonalak direnak direla, modua izan dezaten parte hartzeko euskara horretarako traba izan gabe? Gauza hauek ez dira egiten egun batetik bestera, zeren mendeetan izorratu den guztia mugimendu feministak ez du bost urtean konponduko. Bideak jarri behar dira hona bizitzera datorren edonork –eta berdin zait Cuencakoa izan, Pariskoa izan edo Dakarrekoa izan– edo hemen bizi den eta euskaraz hitz egiten ez duen edonork enpatia izan dezan hemengo gutxiengo linguistikoarekin. Eta hein berean, guk enpatia izan behar dugu eta ulertu jende askok ez daukala aukerarik euskaraz ikasteko. Ez daukala. Ezin duela bere zirkunstantzia pertsonalengatik. Badago jendea ikusi ere egiten ez duena horren premia, bestelako premia batzuk itota dagoelako. Euskara ikasteko aukera izan eta ez ikastea hautu politiko bat da, erdal kulturaren aldekoa, baina ikasteko aukerarik izan ez baduzu, hautu politikoa ez duzu zuk egin: zuri horretarako bidea eman ez dizunak egin du zure partez. Eta orduan bideak ja-



rri behar dira zure eskubideak eta nireak ez dezaten bata bestea zapaldu. Alegia, nik eskubidea daukat euskaraz hitz egiteko. Zuk ezin duzu. Ba egingo dugu zer edo zer. Borondate ona baldin badago zerbait egin daiteke, eta nire ustez hori jardunaldi feministetan ikusi da.

Jardunaldi feministetan azpimarratu zen gisan, euskara kolonialista izan den eta den herri bateko herritarren hizkuntza da. Eta aldi berean, interes politiko jakin batzuek diseinatutako eraso jarraiak jasan izan ditu euskarak, eta euskararen hiztunek. Egin daiteke euskaraz edota euskararen alde ikuspegi dekolonial batetik?

Bai, egia da. Euskaldunok parte hartu dugu Amerikaren eta Afrikaren kolonizazioan. Baina parte hartu dugu espainiar eta frantses moduan. Kolonizatu

dugu Latinoamerika, kolonizatu dugu Maroko, Aljeria... Hala da. Batzuetan, ordea, behartuta: halaxe ibili ziren euskaldun asko Aljeriako gerran, esaterako. Han ibili izanak ez du esan nahi euskara hizkuntza kolonial bat denik, inondik ere. Euskaldunok Marokon, Aljerian edo Latinoamerikan inposatu dugun hizkuntza ez da euskara izan, frantsesa eta gaztelania izan dira. Euskara bere herrialdean setiatua eta hiltzorian jarria dago, eta euskara koloniala dela esatea nire ustez hanka-sartze kontzeptual ikaragarria da. Euskaldunok parte hartu dugula kolonizazioan? Bai, jakina, baina ez euskara inposatzeko.

Eta niretzako paradoxa latza da hemen gai dekolonialak gaztelaniaz eta frantsesez lantzea. Guk beste herri batzuetan inposatu ditugun eta guri hemen inposatu dizkiguten hizkuntzetan landu behar dugu pentsamendu dekoloniala? ●

2020 EuskarAbentura

espedizioa

Matrikulazio epea zabalik • Matrícula abierta
Martxoaren 15era arte • Hasta el 15 de marzo

www.euskarabentura.eus

Babesleak

Laguntzaileak